



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Anton Aurre zendu da, Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakari izan zana 12 urtez

Bilbon, 2013ko irailaren 23an

Anton Aurre, Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakari izan zana hiru agintalditan zehar (1983-1995) hil egin da gaur, 86 urte bete behar zituan egunaren bezperan. Euzko Abertzaleak (EAJ/PNV) Taldeko politikaria, Uribeko barrutiko batzarkide izan zan 16 urtez (1979-1995), eta azken 12 urteetan Bizkaiko Legebatarreko Lehendakaria izan zan, Jose Mari Makuaren ostean. Gernikan bihar egiteko dan Batzar Nagusiaren hasieran oroimen eta autortza hitz batzuk esango ditu Batzar Nagusietako oraingo Lehendakariak, eta minutu bateko isilunea gordeko da.

1983ko maiatzaren 24an hautatu eben lehenengoz Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakari, Francoren diktadurearen osteko demokrazialdiaren bigarren agintaldiaren hasieran hain zuzen be. Bere lehenengo hitzaldian, Aurre jaunak esan eban “agintaldi honetan Foru Erakundeok benetakoak dirala eta Bizkaia jaurpide eta administrazioa garai batekoak baino eraginkorrakoak izango dirala esan daiteke”. Orduantxe hasi zan eratzten gaur egun ezagutzen dogun euskal erakundeen egituraketea.

Urte horren amaieran, Lurralde Historikoen Legeak zehaztu egin ebazan erakunde bakotxaren aginpideak, eta horren ondorenez Batzar Nagusiak zenbait gai arautzen hasi ziran, besteak beste zergapidea, urigintza, gizarte ekintza, kultura, garraioak, errepideak edo nekazaritza.

Batzar Nagusien arduradun egoanean bete zituan egitekoen artean azpimarratu egin leitekez erakundearen jarduera normalizatua bermatuko eban plantila egonkorra sortu izana, Batzar Nagusien jarduerarako araudi ezbardinak onartu izana edota Lehendakari zan bitartean 142 Foru Arau onartu ahal izatea sustatu eta lagundu izana.

Batzar Nagusietako Lehendakari lanetan hasiaz batera Batzorde Berezi bat sortu eban, 1983ko abuztuan Bilbo eta Bizkaia triskatu ebezan uholdeek eragindako kalteak konpontzetko egozan baliabideak kudeatzeaz arduratuko zana.

Batzar Nagusien Lehendakari izan zan azken agintaldian hainbat arau eta erabagi hartu ziran erakundearen, gaur eguneko Bizkaia oinarri sozialak, politikoak eta ekonomikoak ezarten lagunduko ebenak. Horren adibide dira zenbait azpiegitura eta urigintza-proiektu, esate baterako Guggenheim Museoa, Bilboko metroa, Euskalduna Jauregia eta itsasadarreko udalerrien berbizkundera.

Batzar Nagusietako Lehendakari zala bere azken ekitaldietako bat Abellanedako Batzarretxean dagoan Enkarerrietako Museoaren inaugurazioa izan zan, 1994ko urrian.

Ajangizten jaio zan 1927ko irailaren 24an. Ezkondua eta lau seme-alabaren aita, kapitaina zan eta 25 urtez ibili zan itsasoan eta 20 urte lehorrean, Naviera Vizcaina enpresako pertsonalaren zuzendari. 1979. urtean Bizkaiko Batzar Nagusietako batzarkide hautatua izan zan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Fallece Anton Aurre, presidente de las Juntas Generales de Bizkaia durante 12 años

Aurre

Bilbao, a 23 de septiembre de 2013.

Anton Aurre, ex presidente de las Juntas Generales de Bizkaia durante tres legislaturas (1983-1995) ha fallecido hoy en vísperas de cumplir los 86 años de edad. El histórico político del grupo juntero Nacionalistas Vascos (EAJ/PNV) fue apoderado durante 16 años (1979-1995) por la circunscripción de Uribe. Durante sus últimos 12 años en Juntas ocupó la presidencia de la Mesa, tras sustituir en el cargo a José María Makua. En su memoria, el pleno de mañana en Gernika se iniciará con unas palabras de recuerdo y reconocimiento de la actual Presidenta de Juntas Generales, Ana Madariaga, y un minuto de silencio. Las banderas ondearán a media asta.

El 24 de mayo de 1983 fue elegido por primera vez presidente del parlamento vizcaíno en el II Mandato de las Juntas Generales en la etapa democrática tras la dictadura de Franco. En su primer discurso, Aurre destacó que “durante este mandato se puede afirmar que las instituciones forales servirán para que Bizkaia disponga de un Gobierno y una Administración mucho más eficaces”. Eran los tiempos en los que el entramado institucional vasco, tal y como lo conocemos hoy, comenzaba a edificarse.

A finales de ese año, la Ley de Territorios Históricos delimitó los distintos ámbitos de actuación del armazón competencial lo que deparó que las Juntas Generales asumieran capacidad regulatoria en materia de Fiscalidad, Urbanismo, Acción Social, Cultura, Transportes, Carreteras o Agricultura.

Entre sus principales logros al frente de la cámara vizcaína, se encuentran la creación de una plantilla fija para el funcionamiento normalizado del parlamento vizcaíno, la aprobación de distintos reglamentos de funcionamiento de las Juntas Generales, o el impulso y contribución para que se aprobaran 142 Normas Forales durante su etapa presidencial.

Nada más iniciar su periplo al frente de las Juntas creó una Comisión Extraordinaria que se encargaría de gestionar los recursos existentes para paliar las inundaciones que anegaron Bilbao y Bizkaia en agosto de 1983.

Durante su último mandato al frente de Parlamento vizcaíno, las Juntas Generales de Bizkaia se convirtieron en el epicentro de importantes decisiones normativas que contribuyeron a asentar las bases sociales, políticas y económicas de la Bizkaia actual, mediante el diseño de las grandes infraestructuras y proyectos urbanísticos, como el Museo Guggenheim, el metro de Bilbao, el palacio Euskalduna o la revitalización de los municipios de la Ría.

Uno de sus últimos actos protocolarios al frente de la cámara vizcaína, se desarrolló en octubre de 1994 cuando presidió la inauguración del Museo de las Encartaciones en la Casa de Juntas de Abellaneda.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Nacido en Ajangiz el 24 de septiembre de 1927, casado y padre de cuatro hijos, fue capitán de la marina mercante, navegó durante 25 años y ocupó el puesto de director de personal en la Flota Naviera Vizcaina durante veinte años antes de ser elegido en 1979 apoderado de las Juntas Generales de Bizkaia.